

egin zuten, eta, gainera, indar errepublikano barneko borroka bertatik bizi izan zituen. POUM milizia troskistan integratuta –haiekin hasi ziren borrokan ILP Ingalaterrako Alderdi Laborista Independenteko kideak–, 1937ko maiatzean Bartzelonan izandako istiluen ondoren, POUM faxisten kolaboratzailetzat jo zuen PSUC alderdi komunistak, eta Errepublikako gobernuak legez kanpokotzat jo zuen.

Taylorren iritzi, horrek guztiak eraman zuen Orwell bere jarrera politikoa antiautoritarioa finkatzera. Idazleak berak honako hau adierazi zuen orduan: «Sozialismoan sinesten dut, lehen egin ez dudana». Beste ondorio bat ere izan zuen Katalunian gertatutakoak. Handik aurrera gogo biziz gorrotatuko zuen estalinismoa. Hori guztia bere lehenengo liburu politikoa garrantzitsuan islatuko zuen: *Homage to Catalonia* (1938, Omenaldia Kataluniarri).

Homofobiaren orbaina

Taylorrek Orwellen pentsamenduaren beste alderdi batzuetan ere jartzen du arreta, eta, aurretik ere kontu ezagunak izan arren, nabarmen du kanpora begira sozialismoaren eta autoritarismoaren kontra sutsu jokatzeko bazuena bera ere autoritarioa izan zitekeela. Gainera, ez zituen inoiz ezkutatu bere jarrera homofoboa. «Ez naiz [Wystan Hugh] Auden eta [Stephen] Spender bezala modan dauden maritu horietakobato», adierazi zuen.

Taylorren biografian, pisu nabarmena hartzen du Orwellek Espainiako gerran bizitakoak

Antisemitismoak ere zeharkatzen ditu bere lehenengo lanak, eta Parisen eta Londresen igaro zuen garaia jasotzen duen *Down and Out in Paris and London* (1933) ez-fikziozko lanean pertsonaia negatibo guztiak juduak dira. Gerora, ordea, Bigarren Mundu Gerra amaituta, holokaustoaren testigantza eta irudiak mundu osora zabaldu zirenean, Ingalaterran hazten sumatzen zuen antisemitismoa salatu zuen *Antisemitism in Britain* saiakeran.

Bigarren Mundu Gerra amaituta eta ordurako gaixo, totalitarismoak berriro ere jopuntuan jarri zituzten bi nobela argitaratu zituen Orwellek, biak ala biak XX. mendeko lan ezagun eta gorapartuenetakoa bilakatu direnak: *Abereen etxaldea* eta 1984.

Kantu mutua


Irati Majuelo

Oihane Amantegik 2020. urtean argitaratu zuen lehendabiziko nobela laburra, *Ibaier-tzeko ipuina*, eta orduan irakurlea harritu eta harrapatzeko baliagarri izan zitzaizkion zenbait ezaugarri errepikatu ditu, oraingoan ere, bigarren lana sortzeko: denboran eta espazioan urrun kokatzen den testuinguru ezagunak bat, korapilatze gutxiko istorioa, estilo bizi eta adierazkorra. Eta bietan ala bietan, eraikitako unibertso literarioa osatzen laguntzen duen hari musikala.

Cayo Hueso jazz doinuek bustitzen dute, eta alkoholak eta tropikoetako ekaitzek. Floridako penintsulatik gertu urgaineratzen diren irla txikietako batean kokatzen da eleberria, XX. mendeko lehen erdian, ez dakigu zehazki noiz. Maudey eta Virgil dira protagonistak, jazz abeslaria lehena, musika kritikaria bigarrena. Uda partean egiten dute topo

bi pertsonaiek Cayo Hueson, otarra denboraldia hastarekin bat. Zoriak gidatutako enkontrua da, beraz, eleberriak kontaktzen duena, harreman iheskorrek izan dezaketen intentsitatea, istant batean izan dezaketen ezinbestekotasuna eta ondorengo ahanztura azaltzen duena.

Marinel zahar bat da eleberriko narratzailea, uharteko biztanlea eta behatzaile fina, eta beraz, haren perspektibatik eta ahotsetik



'Cayo hueso'

Idazlea: Oihane Amantegi.
Argitaletxea: Elkar.

Ezinbesteko galderak (eta II)

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Ttartalo argitaletxeak badu *Lehen galderak eta erantzunak saila* deitzen den bilduma bat, oraingo bederatzi titulu eskaintzen dituena. Album ilustratuaren formatuan eginak daude, testua irudien artean kokaturik, eta hegala tolesgarriak erabiltzen dituena azalpenak emateko.

Izenburuaren galdera orokorra bai batzuetan duen irakurleari, eta barruan, orri biko bakoitzean, beste galdera orokorra –demagun, gure liburuko hirugarren orri bikoan: «Nork migratzen du nora?»–. Galdera sistema honekin, mural erako irudiaren gainean agertzen diren animaliak hegala tolesgarri baren gainean daude, galderatxo zehatzarekin, hegala altxatzen erantzuna jasotzeko moduan.

«Maparik behar al dute animaliek?», jartzen du arranoaren parean, eta hegala azpian erantzuna: «Ez, eguzkia eta izarrak...».

Bildumak, oraingo, bi multzotan banatutako gaiak eskaini dizkigu, ugariena zientzien eta bizia- ren ingurukoak (loreak, euria, erleak, animalien hizkuntzak, ernalkuntza, eguzkia, heriotza, migrazioak) izanik, nahiz eta tartean *Nola izan naiteke atsegina besteekin?* titulu erabat desberdina argitaratu duten.



'Nora doaz animaliak neguan?'

Idazlea: Katie Daynes. Ilustratzailea: Christine Pym. Itzultzailea: Amets Santxex Munain. Argitaletxea: Tarttalo.

kontaktzen da istorioa. Arrantza-lea irakurleari zuzentzen zaio, eta maitasun aferaren testigu soil gisa aurkeztzen du bere burua, baina narratzaile orojakilearen papera betetzen amaitzen du, pertsonaien sentimendu eta pentsamenduak argitzen baititu bere errelatoan.

Narratzailearen eta irakurlearen artean eraikitzen den harreman-joko horrekin, ipuin luze batek izan dezakeen egituraren traza ematen dio idazleak liburuari. Marinel zahararen kontakizunak deskribatzen poetikoak eta hausnarketa pertsonalak eranstean dizkio kontakizunari. Oro har, atal laburretan banatzen bada ere, estiloak jario itxura hartzen du, eritimoa ongi kontrolatzen duen idazkera dauka Amantegik.

Istoria sinplea da, gertaera eta ekintza urrikoa: bi pertsonak gau batean bat egin ondoren, harreman horrek ez du jarraitzen. Interesgarria da idazlearen hautua, eta arreta beste elementu batzuetan jartzeko aukera ematen dio horrek: estiloan, egiturari, ambientazioan. Alabaina, zenbait unetan hari nagusia ahulegia ez ote zen iruditut zait, bereziki

eleberriaren amaiera sostengatzeko, neskaentzat hasieratik gau bateko desira pultsua baino ez denak, gerora horrenbeste pentsamendu eta itzulinguru eragiten ahal dizkion pentsatzean. Alde horretatik, Maudeyren mututasuna, gaixotasunetik at ere, aipagarria da, irakurleak ez baitu haren hitzik jasotzen, eta beraz, hari enkontruak sentiarazitakoa ulertzen zailagoa da Virgilen kasuan baino.

Ziur aski, idazlearen bertute handienetako bat da unibertso literarioak zertzelada gutxiarekin eraikitzea. Bere bi eleberriek elementu gutxi behar dituzte irakurlea hasieratik testuinguruan kokatzeko. Kasu honetan, aski da otarrain sasoi aipatzea herri arrantzaletxi bat irudikatuzko, tropikoetako giro heze eta beroa desiraren eta nahi eta ezinen joan etorriak adierazteko, eta Mariaren estatua eta jazz kontzertuak udako iluntzeetan pizten diren askatasun printzak gogoratzeko. Giroei tankera zorroztasunez sumatzen abila da Amantegi, eta bere mikro unibertsoen bidez beste garai eta ingurune batzuetara bidaiatzeko aukera ematen dio irakurleari.

Kirioak erlaxatzeko ordua da

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Komikia argitaratzeko joera handitzen ari da, gero eta argitaletxe gehiagoren eskutik. Haurrek hainbeste merezi dute, Asterix bezalako klasikoak (ez dut ezer haren kontra) gutxitxo dira eta genero honen eskaintza irakurle guztietara iristea nahi badugu.

Itxaropena piztu da haur literatura sustatzen dugunon artean, badirudielako gurasoak eta gainerako bitartekariak konturatu direla komikia literatur genero aberatsa dela, beste edozein genero izan daitekeen bezainbat bederen, hauraren irakurmenerako gaitasuna handitzea dagokionez.

Usoak azpituak duen komiki honek narrazio erakargarria eskaintzen die lehen irakurleei, pertsonaia nahiko ongi eraikiekin eta

sinplekerietatik urruti dagoen gidoi interesgarriarekin. Ilustrazioak, ekarpen estetikoak egiteko ez ezik, kontakizuna aberasteko gai dira, emaitza borobilduz.

Itsas-laminak ohikoak diren mundu batean Kokoloa deitzen den urpeko herri bat dago, lehortarron oso antzeko gizarte egiturarekin. Kokoloako lamina-kumee usoen berri jakiten dutenean, espero ez diren gertakariak jazoko dira, eta gu, irakurleak, euren harrituko gara...



'Ongi etorri Kokoloara'

Idazleak: P. Pinson eta I. Rabbiosi. Ilustratzailea: Dewi Noir. Argitaletxea: Tarttalo.